

KONTROL MOZIOA **BRETXAREN ETORKIZUNA DELA-ETA**

EH Bildu udal taldeko zinegotzi den Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Bretxako eraikinaren etorkizunari buruzkoa. Mozio hau 2015ko uztailaren 20an izandako Ogasuneko Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den ekainaren 30an amaitu zen Bretxa gune komertzialeko Arraindegia eraikinaren berreskurapen publikorako Udalak eta hura kudeatzen duen enpresak egindako akordioaren baitan jasotako plangintzaren lehen fasea.

Alta, ekainaren 30etik eta gaur egun ere, esaterako, itxia egon beharko lukeen Korner taberna, irekita dago. Joan den uztailaren 20ko Ogasun Batzordean egindako interpelazioaren ondotik emandako erantzunek ez zuten argitu inondik inora egoera hori legezkoa eta zuzena ote den, eta kontratua norik luzatu dion, horrela bada.

Bestalde ere, interpelazio beraren ondotik jasotako erantzunaren baitan, eta gaur egun Udal Gobernuak osatzen duen PSOE alderdiko bozeramaileak esandakoaren arabera, Udal Gobernuak bi alderdien artean ez dago adostasunik Bretxari eta zehazki Arraindegia eraikinari eman nahi zaion irtenbideaz. Are gehiago, ez dakigu Udal Gobernuak itxia dagoen akordioa beteko duen, ez eta aurreko gobernuak mahai gainean jarri zuen proposamena bere horretan aurrera eramango duen, edo ez, ezta ere Alde Zaharreko eta Erdialdeko bizilagunekin gai honen inguruan hartu emanik izan ote duen ere.

Horregatik guztiarengatik, hau da gure

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, auzotarren eskaerari erantzuteko, jar dezala Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren esku beharrezko lur azal bat Alde Zaharrak eta Erdialdeak izan dezaten anbulategi duin eta irisgarri bat eta tamaina egokia duena.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

- 2.- Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio bete ditzala Arraindegia eraikina faseka berreskuratzeko aldeek egindako akordioak.
- 3.- Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio kontratu araudia zorrotz beteta eta, inongo salbuespenik egin gabe, dagokion tituluaz kudea dezala udal ondarea - Udala zuzenean kudeatzen ari den eraikin horretako alderdiak ere barne hartzen dituen, baita, zehatz mahatz, irabazi asmoa dutenak ere-.
- 4.- Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio adostu dezala auzotarrekin zer egin Arraindegia eraikinarekin, ekipamendu arloan izan ditzaketen espazio beharrak lehenetziz.

Donostian, 2015ko uztailaren 24an

Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia